



Merkatari agurgarria,

Jakingo duzunez Bermeoko Udalak berriro ipini du martxan "Bermeoko Bonoa" ekimena eta ekimen honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaitut.

"Bermeoko bonoa" herriko denda eta enpresa txikiak indartzeko dinamizazio kanpaina da eta udalak holako 3.500 bono prestatu ditu. Herritarrak bonoa 10€-tan erosiko du eta 15€ gastatu ahal izango ditu. Bermeoko Udalak ekimen hau aurrera erateko, Berton eta Berazel alkarteen laguntzea dauka.

Bermeoko Udaleko Behargintza bulegoak dauka ekimen hau aurrera eraman eta zalantzak argitzeko ardura.

Ekimen honetan parte hartu gura duten herriko denda eta enpresa txikiek apirilaren 8tik apirilaren 26ra arte ahal izango dute izena eman eta zuk ere horrela egin gura baduzu, Berh@z bulegoan aurkeztu beharko duzu dokumentazioa.

Gutun honekin batera oinarrien laburpena eta izena emateko dokumentua bidaltzen dizugu.

Gogoratu ekimen honek arrakasta izateko zure parte-hartzea ere behar dugula.

Adeitasunez,

Bermeon, 2019ko martxoan



Idurre Bideguren Gabantxo
Bermeoko Alkatea.